

XXX

URTEURRENA

Gizarte Kontseilua


1 9 9 0 - 2 0 2 0

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Idazkaritza Nagusia

Lege-gordailua: Lege-gordailua: G 00203-2021

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

Inprimatzea: EPS Comunicación

Ale-kopurua: 300

Gizarte Kontseilua

1 9 9 0 - 2 0 2 0

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Mundu mailako pandemia batek eragindako krisi historiko batean murgilduta, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak ezin du gustatuko litzaiokeen moduan XXX. urteurrena ospatu, ekitaldi publiko solemne batekin. Hori dela eta, argitalpen hau kaleratu dugu joan diren urteotako gure jardueraren mugarri nagusiekin.

Inguratzen gaituen ustekabeko egoera dramatikoak gure Unibertsitatea, baita gizarte orokorrean ere, eguneroko jardueraren egiteko guztietan garrantzia handiko aldaketak oso denbora laburrean egitera behartu du. Irakasleen, ikasleen eta administrazioen, segurtasuneko eta garbiketako langileen ahaleginari eta inplikazioari esker egokitu gara egoera horretara. Horrela, unibertsitatearen jarduera izugarriak aurrera egiten jarraitzeko aukera izan du, egoeren baldintzapean, baina euskal gizartearekiko zerbitzua galdu gabe.

Ikerketak eta zientziak gaixotasunari aurre egiteko txertoak denbora errekorrean lortu badituzte ere, osasun-agintariek ez dute baztertzen kutsatze-bolada gehiago eta euren ondorio izugarriak ere izatea etorkizun hurbilean. Konfinamendu-aldietara itzuli behar izanez gero eta muturreko neurriak hartu behar izanez gero, gure unibertsitate-komunitate publikoak erakutsi du gauza dela irakaskuntzari eta ikaskuntzari eusteko, urrutiko hezkuntzako estrategia eta tresnen laguntzarekin. Edonola ere, eta aldaketa etengabea ikusten genuen etorkizunaren aurrean, egoera oso desberdina aurkezten zaigu, zeinean lehentasun berrien ondorioz, XXI. mendeko unibertsitatearen eta gizartearen errealitatea birpentsatu behar dugun.

Gertakari ugari eman dira 30 urte hauetan gure herrialdean eta aldaketa handiak jazo dira aldi horretan bai gure unibertsitatean, bai haren gobernu-organoetan –eta, horien

artean, Gizarte Kontseiluan bertan-. Hasiera zaila eta konplexua izan zen: bizitzan gauza gehienetan bezala, halaxe izaten baita ibilbideari ekitean. Egoera latzetan eta eskura dugun neurrian, unibertsitate-jarduera garatzen lagundu dugu, ordezkatzeko dugun gizartearen mesedetan.

Gure kasuan, ekarpen horiek badute izen-abizenik –eta bidezkoa da, gainera, nabarmentzea eta haiei eskerrak ematea–; alegia, Gizarte Kontseiluak izan dituen zortzi presidenteei eta 200 kide baino gehiagori, horietako batzuk jada gure artean ez daudenak. Horiek guztiek adorez eta zer-bitzu-borondatez lan egin dute urteotan guztiotan, helburu bakar bati jarraikiz: Euskadiko eskari sozialen, ekonomikoen eta kulturaren mailako unibertsitate publikoa eta kalitatezkoa sortzea.

Denbora honetan, unibertsitate publikoa elkarriketa eta pentsamendu askea sustatu dituen eragilea izan da, zuzenbide-gizarte demokratikoaren oinarritzko printzipioak urratzearen aurka. Horregatik guztiatik, oroimen eta aintzatespen hunkigarria merezi dute urteurren honetan José Luis López de Lacalle kazetari eta Gizarte Kontseiluko kideak eta Fernando Buesa lehendakariorde eta Hezkuntza eta Unibertsitateko sailburuak, ETArekin biktimak biak ala biak.

Urte hauetan zehar, 200 osoko bileratan baino gehiagotan, Gizarte Kontseiluak lau plan estrategiko aktibatu ditu, zeinetan Euskal Herriko Unibertsitatea gizartera hurbiltzearen aldeko apustua egin duen. Lehendabizikoa, hamar urteko ibilbidearen ondoren, 2000. urtean idatzi zen, Robert Winter Unibertsitateko kalitate-katedradunak gidaturiko eta XXI. mendeko aldaketei aurre egiteko ildo nagusiek zuzendutako hausnarketa sakon baten ondoren. Urtebete lehenago, Gizarte Kontseiluak 1999ko apirilean kaleratu zuen TOPALEKUA aldizkariaren lehen alea, aldian-aldian bere bileretan landutako gaien berri emateko eta ikuspegi sozialak unibertsitateko lanari ematen dizkion berriak jasotzeko. Harrezkero, 100 informazio aldizkari baino gehiago argitaratu dira, eta horietan Kontseiluak gizarte-eragileekin partekatzen ditu hainbat gairekin lotutako albisteak, hala nola ikasleen enplegarritasunarekin. Era berean laneratzeari buruzko inkestak eta unibertsitate-jardueraren adierazleak ere partekatzen ditu gardentasunaren eta gizarte-premia berrien onerako, baita gizarteari kontuak emateko ere.

2002ko hasieran, Interneten estreinatu zen Kontseilua. Data horretatik aurrera, etengabe eguneratuta egon da webgunea. Bertan, organoak sortutako informazioa eta jarduera jasotzen dira, eta intranetaren erabilera optimizatzen da, kontseilukideekin komunikatzeko tresna eta kanal gisa. Horri esker, arindu egin da saio bakoitza egin aurreko dokumentazio-prozesua, eta aurrera egin da paper-euskarria ordeztzeko bidean.

Beti baitago zer egin: Berrikuntzaren paradigma den unibertsitatea izaten lagundu behar dugu, ekonomia- eta kultura-egituran txertatuta dagoena. Era berean, lan-merkatuaren eta enplegu kualifikatuaren erritmoak jarraitu behar ditugu, eta erakundeei zein enpresei ezagutze etengabe helarazi.

Euren esfortzuagatik eta elkarlanagatik, eskerrak eman nahi dizkiet gure aurreko denei, Gizarte Kontseiluko kide guztiei eta Euskal Herriko Unibertsitatean egiteko publikoan diharduen orori, eta bereziki Gizarte Kontseilura atxikita daudenei.

Joseba Agustín Eizaguirre Agote

EHUko Gizarte Kontseiluaren presidentea

I. Plan Estrategikoa

Unibertsitateen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoan jasota agertzen da Unibertsitateen Gizarte Kontseilua. Hezkuntza eta Zientziako ministroak, José María Maravallek, unibertsitateak beren gizarte-ingurunean integratzea defendatu zuen Diputatuen Kongresuan, bai eta Gizarte Kontseilua ere, unibertsitatearen barruko gizarte-interesen bozera-maile gisa. Gizarte Kontseiluak unibertsitatearekin zerikusirik ez zuten ordezkariak bilduko zituen, ekonomia- eta aurrekontu-gaietan eskumen garrantzitsuak zituztenak. Unibertsitatearen autonomiaren aurkako erasotzat jotzen zuten kritikekin hartu zuten. Ekainaren 27ko 6/1985 Legeak Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua sortu zuen, eta euskal gizarteak Euskal Herriko Unibertsitatean parte hartzea bermatzen duen unibertsitate-organo gisa definitu zuen. Hamaika gorabeheraren ondoren, Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko presidentea izendatu zuen 1989ko azaroan, eta 1990eko urtarrilean 30 kidek osatutako organoaren bilkura eratzailea egin zen (unibertsitatearen 12 ordezkari eta interes sozialetako beste 18).

Lege Organikoan, lege autonomikoetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko legerian izan diren aldaketek unibertsitate publikoetako gizarte kontseiluen profil soziala areagotzen lagundu dute. Hala ere, ez da erraza izan organo berri hori txertatzea goi-mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoan, esparru juridiko eta eskumen-esparru konplexu batean.

Gizarte Kontseiluaren bigarren hamarkadari aurre egiteko, lehen urte horiek eman zuten ikuspegiarekin, Europako Errektorren Konferentziaren Paris eta Boloniako adierazpenekin, Unibertsitate 2000 txostenarekin eta Euskal Herriko Unibertsitate Hezkuntzari buruzko Liburu Zuriarekin, Gizarte Kontseiluak plangintza estrategikoari ekin zion, zertarako, eta etorkizuneko erronken aurrean interes sozialak unibertsitateari transmititzeko.

Hausnarketa sakon baten ondoren, Gizarte Kontseiluak plangintza estrategikoaren prozesuari ekin zion, etorkizuneko jardunerako erreferentzia izango zen proiektu adostu bat izateko. Era berean, XXI. mende-ko aldaketei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen zituen ildo nagusiak landu zituen.



Horrenbestez, Gizarte Kontseiluaren Lehen Plan Estrategikoa onartu zen 2000. urtean, kontseiluak hamar urte bete zituenean.

2000-2003 aldirako plan horrek honako ardatz hauek zehaztu zituen:

- ◆ Unibertsitatearen irudia gizartera komunikatzea.
- ◆ Gizartearen ahotsa unibertsitatara helaraztea.
- ◆ Unibertsitateak gizarterako dituen baliabideak barreiatzea (eta alderantziz).
- ◆ Kontaktuak sustatzea.
- ◆ Aldaketen katalizatzaile izatea.
- ◆ Unibertsitate-kudeaketari ekarpena egitea.
- ◆ Kontseilua eta unibertsitatea elkarrengana hurbiltzea.

Planaren harira, jarduera zehatzak taxutu ziren han zehaztutako egitekoa betetzeko. Gizarte Kontseiluak, 2000ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, lan-plan bat garatzeko taktikak identifikatu eta onetsi zituen, honako gaikako unitatetan multzokatuta:

- ◆ Lan-merkatuaren, gizartearen beharren eta unibertsitateko tituludunen egoeraren arteko kontrastea aztertzea.
- ◆ Lan-eskariari eta lan-egoerari buruzko behatoki profesionala sortzea.
- ◆ Lan-merkatuari buruzko informazioa ikasleen eskura jartzea.
- ◆ Gizarte- eta enpresa-beharrak hautematea, aztertzea eta ebaluatzea.
- ◆ Ikasketa-planak egokitzen laguntzea.
- ◆ Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatzea, praktika-aukerak identifikatzeko.
- ◆ Unibertsitatea-Gizartearen Fundazioa sortzea.
- ◆ Unibertsitateak eta enpresek elkarren baliabideak aprobetxa ditzaten sustatzea.
- ◆ Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarekiko harremana sustatzea.



II. Plan Estrategikoa

2006ko abenduan, Gizarte Kontseilua-ren osoko bilkurak 2007-2010 aldirako Plan Estrategikoa onartu zuen. Bigarren plan estrategiko horretan, Euskal Herriko Unibertsitatearen irudia indartzearen eta irakaskuntza-erakundea gizartera hurbiltzearen alde egin zuen.

Laurteko horretako plan estrategikoak lau jarduera-ardatz nagusi ezarri zituen, Euskal Herriko Unibertsitatearen irudia indartzeko, goi-mailako irakaskuntza publikoan gizartearen presentzia areagotzeko eta Gizarte Kontseilua sendotzeko bien arteko lotura gisa.

Dokumentua sei atal handitan egituratu zen: Gizarte Kontseiluaren egitekoa,



balioak, estrategiak, barneko eta kanpoko baldintzak, estrategiak lortzeko beharrezkoak diren taktikak edo ekintzak, eta betetze-maila ebaluatzeko adierazleak.

Kontseiluaren egitekoari dagokionez, planak hiru eremuren inguruan zehaztu zuen:

- ♦ **Kontseilua - Unibertsitatea:** Unibertsitatearekin lankidetzat, unibertsitatearen egitekoa gauzatzeko, eta enpresek eta, oro har, gizarteak finantzaketa bilatzen parte hartzeko.
- ♦ **Unibertsitatea - Gizartea:** Bien arteko lotura, gizartearen kezkak eta beharrak unibertsitateari helaraziz; eta unibertsitatearen gaitasunak, kezkak eta beharrak, osteratuta, gizarteari transmitituz.
- ♦ **Kontseilua - Gizartea:** EAEko, Espainiako eta nazioarteko erakunde ekonomikoekin, profesionalekin, kulturekin eta instituzionalekin harremanetan jardutea, Gizarte Kontseiluak unibertsitatearen eta gizartearen arteko transmisio-ildo gisa egiten duen lana erraztuko duen informazioa biltzeko eta helarazteko.

Nabarmentzekoa da plan horretan Gizarte Kontseiluko kideek adosten dituzten balioak nabarmentzea; izan ere, haren ezaugarri bereziak dira unibertsitatearekin elkar ulertzeko eta batera lan egiteko gaitasuna, unibertsitatearen kudeaketa errazten duen jarrera positiboa, elkarrekin konfiantza, gobernu-taldeari laguntzea eta erakundearen arteko leialtasuna.

Plan horrek tresna berri eta eraginkor bat jarri zuen abian: urteko plan operatiboak. Haietan, Gizarte Kontseiluak bete nahi zituen berehalako helburuak islatzen eta finkatzen ziren.



III. Plan Estrategikoa

Unibertsitate-ereduaren barne kontraesanen ondorioz, unibertsitateen Gizarte Kontseiluari eskumen oso garrantzitsuak eta bere egitekoak burutzeko baliabide urriak ematen dizkienak, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak zehaztutako proiektu batzuek porrot egin zuten. Hala ere, 2011-2014 laurtekorako Plan Estrategiko berri batek lau helburu berri ezarri zituen. Helburu horiek oso baldintzaturik egon ziren ikuspegi ekonomikoaz, akademikoaz eta sozialaz bezainbatean, historiako finantza-krisi global larrienetako baten ondorioz.

1. Gizarte Kontseiluaren izen ona eta aintzatespena indartzea.
2. Unibertsitatearekiko lankidetzak mekanismoak indartzea, Kontseiluaren



kontrol- eta gainbegiratze-funtzioa errazteko eta gizartean garrantzitsuak diren unibertsitate-proiektu estrategikoak bultzatzeko.

3. Unibertsitate-finantzaketa egokia ez ezik, unibertsitate-baliabideen kudeaketa eraginkorra eta efizientea ere bultzatzea.
4. Unibertsitateak gizartean duen presentzia sustatzea (foroak eta topaguneak sortuz, elkarrizketa sozialari eta unibertsitatearen sormen-jardueren hedapenari laguntzeko).

Planaren ikuspegia eta helburu estrategikoak lortzeko, hiru ardatz eta jarduera-ildo bildu zituen plan hark:

1. UPV-EHUren garapen estrategikoa: Lan-kidetza eta babesa eskaintzea unibertsitate-proiektu estrategikotan.
2. Unibertsitatea gizartean proiektatzea: Unibertsitatearen eta gizartearen arteko interakzio- eta presentzia-mekanismoak indartzea.
3. Gizarte Kontseilua unibertsitatean teilakatzea. Kontseiluak Unibertsitateko gobernuan duen parte-hartzea hobetzea.

Aurkako baldintzak gorabehera, ahal izan zen neurrian eta betiere zehaztutako jardueren esparruan, gizarteak ekarpen handiak egin zizkion Unibertsitateari.



IV. Plan Estrategikoa

Gizarte Kontseiluaren plan estrategikoetan gizartearen ahotsa unibertsitateera eramateko erronka errepikatzeak ederki ematen du eremu horretan dauden zailtasunen berri. Elkar ulertzea eta elkarrekin lan egitea da gakoa, baina benetako dinamikek ez diote beti erantzuten goi-mailako irakas-kuntzak planteatuta dauzkan erronkei aurre egiteko lankidetzari. Izan ere, 2015-2018 aldirako Unibertsitate Planean, Legebiltzarak Jaurlaritzari eskatu zion euskal unibertsitateen funtzio soziala indar zezala, horrela, gizartera gehiago hurbiltzeko.

Testuinguru horretan, 2017-2020 aldirako IV. Plan Estrategikoak helburu hau zehaztu zuen: Euskal Herriko Unibertsitatearen eta haren Gizarte Kontseiluaren arteko lankidetzagune zehatzak aurkitzea. Xede horrekin, agertoki berri batean proiektu bateratuak definitzera eta gauzatzera bideratu ziren ahaleginak 2019-2022 aldirako Unibertsitate Plana egin eta onartzearen ondorioz.

Gizarte Kontseiluaren azken plan estrategikoak aurreko planen diagnostiko bat formulatzen du eta honako ardatz estrategiko hauek planteatzen ditu:

- ◆ Kontseiluaren egitekoa indartzea, gizarte-beharrizan berriak kontuan izanda.
- ◆ Unibertsitatea eta enpresak gerturatzea, eta ikasle graduatuen enplegarritasuna sustatzea.
- ◆ Sariak eta aitortzak ematea Gizarte Kontseiluaren jarduera-esparruetan.
- ◆ Aliantza-politika bat garatzea beste gizarte-entitate eta -erakunde batzuekin.
- ◆ Gardentasunean eta kontu-ematean oinarritutako unibertsitate-gobernantza baterantz aurrera egiten laguntzea.

2020ko martxoan, pandemia batek mundua astindu zuen ustekabean, eta gobernu guztiak behartu zituen konfinamendu orokor bat eta mugikortasun-murrizketa handiak ezartzera. Kontseiluaren ekintza-planek eta lan-saioek ere agerian uzten dituzte neurri horien ondorioak.

Pandemia honek garrantzia handiko aldaketak eragin ditu unibertsitate-campusetan. 2030era begira, Europako erakundeek eta Errektoreen eta Gizarte Kontseiluen Biltzarrek hausnarketa estrategikoak sortu dituzte, eta haiexek zehaztuko dute gizarte kontseiluen eta unibertsitateko errektore taldeen konpromisoen testuingurua.



Gizarte Kontseiluko kideak 1990-2020

(Alfabeto-ordena)

Presidenteak

Aloria Sánchez, Asier
De la Sen Larrea, José Manuel
Echeberria Monteberria, Ignacio M^a
Eizaguirre Agote, Joseba Agustín
Guevara Saleta, Emilio
Larrea Angulo, Pedro
Martinez Urquijo, José Miguel
Mendia Urkiola, José

Errektoreak

Aldecoa Luzarraga, Francisco
Balluerka Lasa, Nekane
Barberá Guillen, Emilio
Goiriena de Gandarias y Gandarias, Juan José
Goirizelaia Ordorika, Iñaki
Montero García, Manuel
Pérez Iglesias, Juan Ignacio
Salaburu Etxeberria, Pello

Unibertsitateko Idazkari Nagusiak

Alzate Sáez de Heredia, Ramón
Esparza Leibar, Iñaki
Esteban Galarza, Soledad
Ferreira García, Eva
Garmendia Mujika, Mikel
Hernández Martín, Aníbal
Hualde Sánchez, José Javier
Iriondo Bengoa, Pedro
López Basaguren, Alberto
Martín González, José Luis
Martínez Churiaque, José Ignacio
Quintana Loyola, Antonio

Gerenteak

Aizpurua Telleria, Patxi Xabier
 Andechaga Vivanco, Francisco Javier
 Bilbao Artetxe, Lorea
 Del Valle Cenicacelaya, Carmelo
 Elorza Urbina, Mikel
 Guridi Ormaechea, Moisés
 Legarreta Fernández, Juan Andrés
 Quintanilla Angulo, Jose Ángel
 Unceta Satrústegui, Fernando

**Universidad del País Vasco/ Euskal
 Herriko Unibertsitateko Gobernu
 Kontseiluak izendatutako kideak**

Agirre Loroño, Aitor
 Aguirrechu Zea, Jon Ander
 Albistur Unanue, Iñaki
 Albizu Sebal, Egoitz
 Aldecoa Luzarraga, Francisco
 Alvarez Aparicio, Francisco Javier
 Alvarez Fernández-Bernal, Begoña
 Alvarez Isasi, Ricardo
 Amezua San Martin, Enrique
 Andino Garcia, Susana
 Arana Abendibar, Kepa Jon
 Arellano Cabornero, Luis A.
 Arrieta Pérez, Luis
 Barranquero Arola, Montserrat
 Burguera Liceaga, José Mari
 Castro Angulo, Aratz
 Chamorro Belmont, Alberto
 Cos Rodríguez, Jokin
 Cuesta Graña, José Ramón
 De la Cuesta Arzamendi, José Luis
 De la Fuente Lavín, Mikel
 De la Rica Aspiunza, Gabriel

De Miguel de la Villa, Felipe
 De Ormaetxea Garaizar, Jon Ander
 Domínguez Pérez, Esther
 Doñate Oliver, Francisco
 Etxebarria Bravo, Carlos
 Ezquiaga Ganuza, Francisco Javier
 Fagúndez Argote, Eva
 Fernández de Casadevante, Carlos
 Fernández Eraso, Javier
 Florez Cousillas, Irene
 Galarraga Prieto, Urko
 Gallastegui Zulaica, Carmen
 García García, Iñaki
 García Herrera, Miguel Ángel
 Goitiandia Roquero, Martin
 Gómez-Salazar Sánchez, Pablo
 González Portilla, Manuel
 González Velasco, Juan Ramón
 Goñi Urcelay, Félix M^a
 Grafe Arias, Julio
 Hernández Zubizarreta, Juan
 Herrera Gutiérrez, Jorge
 Llorente Aguinagalde, Adrián Hugo
 Idoyaga Arróspide, José Vicente
 Insausti Maisterrena, Jon
 Izaguirre Hortelano, José M.
 Jubeto Palomares, Ana
 Larrazabal Antía, Jesús M.
 Legarreta Fernández, Juan Andrés
 Lorente Fernández, Leonardo
 Maestro Buelga, Gonzalo
 Martín Pesado, Iker
 Martín Zurdo, Juan José
 Mendizábal Gorostiaga, Arantza
 Montero García, Manuel

Morlan Santa Catalina, Ignacio
 Muniozguren Colindres, Javier
 Navarro Adorno, Enrique
 Ochoa Olaskoaga, M^a Begoña
 Ortego García, Igor
 Pascual Pascual, Daniel
 Pelaz Labrisca, Ricardo
 Pérez Iglesias, Juan Ignacio
 Pérez Romón, Itziar
 Plazaola Muguruza, Fernando
 Portillo Aldecoa, Luis
 Rekagorri Villar, Lidia
 Ruiz de Larramendi López de Munain, José
 Sarasola Gabiola, Kepa
 Serrano Basterra, Rafael
 Serrano Pérez, Felipe
 Setién Pascual, Pablo
 Solé Simó, M^a Luisa
 Tello León, Manuel
 Uranga Otaegui, Emiliana
 Urkaregi Etxepane, Arantza
 Vicente Merino, Ana
 Zallo Elguezabal, Ramón
 Zubia Flaño, Emilio
 Zumalabe Makirriain, José M^a

Eusko Legebiltzarreko ordezkariak

Aboitiz Bilbao, Josu
 Alkain Martikorena, Jesús M.
 Apiñaniz Díaz de Garayo, Adolfo
 Arregi Aranburu, Joseba
 Arregui Larrañaga, Adoración
 Bandrés Unanue, Luis
 Barquero Vázquez, José Manuel
 Berzosa Fernández de Arroyabe, José R.
 Caballero Basañez, Carlos

Carrera Arizaga, José
 Corcuera Muguerza, Paulino
 De Paul Ochotorena, Joaquín
 Deusto Porset, Ana
 Ezkerra Greño, Iñaki
 Gallego Carrasco, Félix
 Garai Iturriondobeitia, José Ramón
 Gómez de Segura Otegui, Joseba Gurutz
 González González, Alfonso
 González-Orús Marcos, Ricardo
 Gutierrez Pinedo, Juan Carlos
 Ibañez García, José Luis
 Ibarretxe Marcuartu, Juan José
 Infante Escudero, Juan
 Juaristi Lizarralde, Juan M^a
 Lazpita López, Roberto
 López de Lacalle Arnal, José Luis
 Luesma Correas, Paulino
 Mendieta Garmendia, Pedro
 Mendizábal Gorostiaga, Arantza
 Moñux Agote, Jon
 Mouriz Ibarra, Ainhoa
 Ormazabal Ormazabal, José María
 Peñacoba Álamo, Pablo
 Pérez Hidalgo, Maite
 Redondo Rojo, Ismael
 Reyes Martín, José Vicente
 Sáenz de Santa Muniategui, Antonio
 Sagarna Alberdi, Teresa
 Samaniego Ogueta, Jerino
 Tobar Arbulu, Joseba Félix
 Uranga Otaegi, Koro
 Urkullu Rentería, Iñigo
 Vergara Orue-Etxebarria, Javier
 Vergara Serrano, M^a Jesús

Batzar Nagusien ordezkariak

Arabako Lurralde Historikoa

Castañer López, Xesqui
 Ibarretxe Marcuartu, Juan José
 Llanos Ortiz de Landaluce, Armando
 López de Juan Abad, José Manuel
 Martínez de Lizarduy, Mikel
 Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki
 Martínez Díaz de Zugazúa, Isabel
 Pastor Alvarez, Juan
 Rodríguez Barahona, M^a Teresa
 Unzalu Hermosa, Mikel

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Alonso Santamaría, Nekane
 Aspiazu Macho, José
 Iriondo Bilbao, Mikel
 Vilella Arriortua, Miren
 Zarraga Aburto, Jon Iñaki

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Alday Gárate, Nerea
 Ansola Larrañaga, Gurutz
 Astibia Legorburu, Miren Aurkene
 Bereziartua Arriaran, Ana
 Ereño Osa, Leire
 Larrañaga Agirre, Esther
 Salaberría Ibargoién, Elías
 Zabaleta Mujika, Oihane
 Sindikatuetakordezkariek
 Altuna Ibabe, Kepa
 Angulo Renes, Juan Manuel
 García de Vicuña Peñafiel, Pablo
 Gómez de Segura Otegui, Joseba Gurutz
 Gonzalez Murua, Iñaki

Gonzalo Belloso, Rafael
 Irasturza Garmendia, Xabier
 Kortabarria Igartua, Germán
 Larrañaga Artola, Inaxio
 Ruiz García, José Luis
 Trevilla Acebo, Carlos
 Ulazia Beristain, José Ángel
 Urrusolo Santos, Jon
 Urrutia Cobeaga, Enrique
 Zeberio Berger, Gabriel

Euskal Enpresarien Konfederakuntzaren ordezkariak

Aloria Sánchez, Asier
 Aparicio González, Félix Adolfo
 Aranbalza Zalbidea, Yoana
 Capelastegui Herrero, Fernando
 Eriz Laskurain, Néstor
 García Bengoa, José Luis
 Hernández Bilbao, Javier
 Pereda Martínez de Musitu, Carlos
 Ruiz Urchegi, José M.
 San Sebastián Flechoso, Federico
 Sánchez Corchero, Juan Antonio
 Sarriegi Etxebarria, Mikel
 Tubía Ezquerria, Pedro
 Zalbidea Lerchundi, Jose M^a

Gizarte Kontseiluko Idazkari Nagusiak


Elorrieta Santos, M. Pilar
 Vergara Orue-Etxebarria, Javier

Legelariak

De Mariscal y Serrano, José Gabriel
 Rementería Ruiz, Ignacio Javier



URTEURRENA



Informazio gehiago